

## FUNTSEZKO SOZIETATEAK

proiektua ondo funtzionatzeko, hainbat enpresa eta hornitzaileekin harreman eta akordio estrategikoak beharko ditugu. Lehenik, aplikazioa garatzeko teknologiko enpresa bat kontratatuko dugu. Enpresa honek aplikazioa sortzeaz gain, mantentze-lanetan eta teknologia berriek ekar ditzaketen arazoei aurre egiten lagunduko digu. Ez da benetako aliantza formal bat izango, baina guretzat akordio gisa funtzionatuko du, gure proiektua hazkunde teknologikoan lagunduko duelako. Bigarrenik, tailer batekin edo frankizia-sare batekin akordio bat egingo dugu, hiri guztietan edo hiriguneetatik gertu egongo diren tailer fidagarriak izateko. Horrela, gure bezeroek beti izango dute tailer hurbil eta ziurtatua, eta gainera lehentasunezko arreta eta prezio murriztuak jasoko dituzte. Tailerrarentzat ere abantailatsua izango da, guk bezero berriak eramango dizkiogulako. Eta, gainera, diru pixka bat ordainduko digute publizitateagatik.

Hirugarrenik, aseguru enpresa batekin hitzarmena egingo dugu. Aseguru enpresak gure jarduerari segurtasuna eskainiko dio, eta arazo edo ezustekoen aurrean irtenbide azkar eta errazak izateko aukera emango digu. Modu honetan, gure zerbitzua fidagarriagoa izango da bai guretzako bai gure erabiltzaileentzat. Bazkide eta hornitzaile hauek aukeratzekoan kontuan hartuko ditugu negozioeredua optimizatzea, kostuak eta arriskuak murriztea, eta baliabideak modu eraginkorrean elkar banatzea. Aliantza hauek guztiak funtsezkoak izango dira gure enpresaren hazkunderako: lagunduko digute gure zerbitzua zabaltzen, kotxe gehiago eta bezero gehiago izaten, eta azkenik, aseguru enpresak segurtasuna eta konfiantza bermatuko dizkigu.

